

eta dantzaz animatuta. Berrehun bat pertsona gerturatu ziren, eta, besteak beste, Estatu frantsesak euskararen aurka dituen «jokamoldeak eta eskasiak» salatu zituzten. Sebastian Castet Euskal Konfederazioaren bozeramaileak Seaskaren adibidea aipatu zuen, eta, hala, datorren abenduaren 28an Baionan ikastolen aldeko manifestazioa deitua dutela gogoratu zuen. Bide batez, parte hartzeraz deitu zuen.

Bernat Etxepare lizeoko ordezkari eta ikasleak ere elkarretaratzeraz bildu ziren. Aukera euren aldarrikapenak plazaratzeko baliatu zuten; hala, baxoa euskaraz ikasi nahi duten eta horretarako eskubidea aitortzen ez zaien bi ikasleren kasua azaldu zuten. Eskubide hori aitortua eta errespetatua izan dadin, Vincent Peillon Hezkuntza ministroari egunero gutun bat bidaltzea eskatu zuten, baxoa euskaraz pasatzeko aukera aitortuz.

Gasteizen ere izan zen aldarrikapenerako tarte, hain zuzen ere, Lakuako egoitzaren aurrean. EHEk elkarretaratze batean irakurri eta ondoren Iñigo Urkullu lehendakariari helarazi zion adierazpenean gogorazi zenez, euskaraz bizi eta beraz erabiltzeko, lehenik ezagutu egin behar da. «Horra gakoaren gakoa. Eta ezagutza bermatzeko neurri zehatz eta eraginkorrak behar dira».

Exekutiboko buruak, bere aldetik, egun bakarren ez, euskara egunero erabiltzeko deia egin zuen, hizkuntzari bultzada horrek ematen diola iritzita. Hala ere, «elebitasunaren aldeko apustua» egin zuen, bere iritziz, «euskal gizartearen nahia» hori delako.

EHEk, berriz, «ekintza ausartak eta eraginkorrak» eskatu zizkion lehendakariari, lehen baino beranduago desager daitezten, adibidez, euskaraz artatuak izateko eskubidea ukatzen zaien familien kasuak. «Mediku elebakarrak Jaurilaritzak jarri ditu», gogorazi zuten.



Donostiako San Telmo museoko mintzodroma. Jon URBE | ARGAZKI PRESS



Jean Haritzelar omendu zuten Lehendakartzan. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS




«Linguae Vasconum Primitiae» liburuaren aurkezpena. Juanan RUIZ | ARGAZKI P.


GARA

DURANGOKO AZOKAN

Tu mejor regalo de Olentzero está en Barrenkale 18-19-20



hemen gaude



EUSKAL HERRIKO SURF GIDA
GUIDE TO SURFING IN THE BASQUE COUNTRY
Egileak: Haritz Larrañaga eta Mikel Troitiño

EL LIBRO DE LA NAVARRA PERDIDA
Autor: Pello Guerra



Zure erosketarekin
"IZOZTEKO ADINA", Harkaitz Canoren kontakizuna eta liburu-flexo bat
OPARI



LETRAS PARA LA LIBERTAD
Autores: Varios



OPERACIÓN OGRRO
Autor: Eva Forest

CAJAS ESPECIALES SUSCRIPCIÓN 6 MESES

L
CUPÓN-REGALO + CAMISETA + LIBRILLO
30€

XL
CUPÓN-REGALO + CAMISETA + LIBRO
60€

XXL
CUPÓN-REGALO + CAMISETA + LIBRO
90€